

UDALTZAINGOKO AGENTEEN LAN-POLTSA
2019/03/04

JARRAIBIDE ORRIA

EZ IDATZI EZER, HARIK ETA EPAIMAHAIBURUAK AGINDUA EMAN ARTE.

- Mahai gainean honako material hau izan behar duzu: zerbait falta bazaizu, eskatu zure inguruko zaintzaileari:
 - Sobreak**
.Sobre handia /sobre txikia/ paper txuri txikia (izen-abizenak eta NAN jartzeko)
 - Jarraibideak:
 - Paper txurian identifikazio datuak jarri.
 - Paper txuria sobre txikian sartu, eta sobre txikia, handian. **Sobreetan ezin da ezer idatzi; ezta markarik egin ere.**
 - Azterketa bukatuta, azterketa sobre handian sartu. **Sobreetan ezin da ezer idatzi; ezta markarik egin ere.**
 - Planoa
 - Erantzun orri mekanizatua.
- Ariketak egiteko denbora osoan zehar, mahai gainean utzi behar duzu zure NANA (nortasun agiria), ondo ikusteko lekuan. **Sakelako telefonorik ekarri baduzu, deskonektatu egin behar duzu.** Ariketak egiteko denbora guztian zehar, mahai gainean, ariketak egiteko eman zaizun materiala, azterketan zehar banatuko dena eta nortasun agiria besterik ezin duzu eduki.
- Ariketak egiteko denbora guztian zehar, erabatekoa izan behar du isiltasunak. Norbaitek ezegoki jokatzeko badu, edo beste lagunei kalte edo enbarazu egiten badie, azterketa-lekutik kanpora bidaliko da.
 - **Azterketaren iraupena: 2 ordukoa izango da bai kale izendegia eta bai azterketa teorikoa egiteko.**
 - Bertaratze ziurtagiria behar baduzu, ez ahaztu bukaeran eskatzea.
 - Adierazitako ordua baino lehenago amaitzen baduzu ariketa, atera ezazu erantzunen orriko orri horia, zeuretzat da eta. Planoa sobre handiaren barruan sartu eta itxi, eta gero, eskua jaso eta emaiozu zaintzaileari. Ondoren, aretotik irten ahal izango zara.
 - Behin-behineko emaitzak Elgoibarko Udalaren iragarki taulan eta www.elgoibar.eus web gunean argitaratuko dira.
 - Ariketaren emaitzen kontrako erreklamazioak aurkezteko epea 3 laneguneko izango da behin-behineko emaitzak argitaratu eta hurrengo egunetik



kontatzen hasita. Ariketen emaitzen kontrako erreklamazioak Arreta Zerbitzuan aurkeztu beharko dira (Elgoibarko Udala – Santa Ana kalea 2., 20870 Elgoibarr, Gipuzkoa).

EZ IDATZI EZER, HARIK ETA AGINDUA EMAN ARTE.

ARIKETA TEORIKOA, ERANTZUN ORRI MEKANIZATUAREKIN:

- ❖ Ikusten duzunez, **erantzunen orri mekanizatuta** bikoitza da: bata zuria da, eta bestea horia. **Ez banatu orriok ariketak amaitu arte.** Izan ere, ariketak amaitu ondoren, orri zuria bakarrik entregatu beharko duzu, eta orri horia zuretzat gorde.
- ❖ Ariketa hauen zuzenketa irakurgailu optikoz egingo da. Beraz, oso garrantzitsua da laukitxoak **ondo markatzea**, orrian bertan esaten den erara; hau da, **laukitxo osoa bete** eta ilundu behar da. Ez egin, bada, ez ixarrik (x), ez biribilik. Arau hau betetzen ez baduzu, litekeena da baliorik gabe geratzea zure ariketa. Ezin da tipexik erabili.
- ❖ Epaimahaiburuak agintzen duenean, bete itzazu erantzunen orriko buruan eskatutako datuak: **izena, abizenak eta NAN zenbakia**. Azken hau idazteko **zenbakiak eta markak** erabili behar dituzu (ikusi erantzunen orriaren atzeko aldean datozen adibideak). Oso da garrantzitsua zure NAN zenbakia ondo idaztea; zalantzarik sortzen bazaizu, galdetu zure inguruko zaintzaileari.
- ❖ Ariketak 45 galdera ditu. Azken 5 galderak ordezkioak dira, eta bakar-bakarrik hartuko dira kontuan aurreko 40etakoren bat baliogabetzen bada. Hala ere, zuk 45 galderak erantzuten saiatu behar duzu.
- ❖ Galdera bakoitzak lau erantzun ditu aukeran: A, B, c eta D. Galdera bakoitzak erantzun zuzen bakarra dauka. Galdera eta dagozkion lau erantzunak irakurri ondoren, erantzunen orrian jarri behar duzu zein den erantzun zuzena.
- ❖ Gaizki erantzundako galderak zigorra daukate. Epaimahaiaren erabakiaren arabera, ariketa honetako puntuak ondorengo formularen arabera lortuko dira: Zuzeneko puntuazioa berdin erantzun zuzenen kopurua ken errore kopuruaren herena izango da ($P = Z - E/3$). Erantzun gabe utzitako galderetan, erantzun bat baino gehiago dutenetan edo balio gabeko zirriborroak dituzten galderetan, zero puntu eskuratuko da.
- ❖ Marka bi eginez gero, erantzun gabe utzitako galderatzat joko da.

ESKERRIK ASKO ZURE LAGUNTZARENGATIK